



Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**, "Etxeko-langileen enplegua Lanbideren bidez kudeatzeari buruz".

ZIOA

2010eko otsailaren 25ean eginiko osoko bilkuran, 34/2010 legez besteko proposamena onetsi zen eta, bertan, besteak beste, 2. puntuko b) atalean Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurizarri zera eskatzen zion: "Enplegu-politika aktiboen transferentzia gauzatzen denean, bultza dadila enplegu-zerbitzu publikoen bitartekaritza etxeko langileen arloan; enplegatuei eta enplegatzaileei jakinaraz diezazkiela kontratuko eskubide eta betebeharrak, eta azter dezala etxeko langileen arloan ezkutuko ekonomia azalarazteko neurriak hartzeko aukera".

Halaber, proposamenaren 1. puntuko b) atalean Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen zion: "Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak kontrola eta iker dezala lanpostu-agentzien jardura etxeko langileen sektorean".

Proposamen horren egungo betekizun-maila ezagutzeko asmoz egindako idatzizko galderei erantzunez, Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuak hainbat baieztapen egin zituen, hala nola, etxeko langileen egoera ezagutzeko esleituriko azterlanaren emaitzak 2011ko lehenengo hilabeteetan izango dituztela eta bertako informazioarekin enplegatu eta enplegatzaileen profil sozio-demografikoari buruz, eta giza talde horren lan-egoera hobetzeko dauden aukera onenei buruzko informazioa izango dutela.

Horretaz gain, aditzera eman zuen, Lanbideren bitartekotza-sistema egonkortzen denean, etxeko langileentzako eskaintzek indarrean dagoen legeria zorrozki betetzen dutela bermatzeko baliabide bat jarri nahi dela abaian. Halaber, adierazi zuen informazio sistema hori agerian egongo zela Lanbideren webgunean, Lanbideren enplegu bulegoen sarean eta orientazioko entitate laguntzaileetan.

Hori dela eta, aurrerapausoak zehazte aldera, eta arto horretako hainbat elkartek eta taldek egindako eskakizunak kontuan hartuz, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- 1- Lanbidek etxeko langileen enplegua erakartzeko lehentasunezko lana egin dezala, arlo honen enpleguaren kudeaketan erreferente publikoa izateko helburuarekin, eta hori eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren baliabide bereziak eratu, sortu eta gara ditzala.
- 2- Behin ikuskaritzarako eskumena gauzatu ondoren, arlo horren gaineko ikuskaritza-lan sistematikoa eta iraunkorra indarrean sartuko dela berma dezala, batez ere lanpostu-agentzien jarduerari dagokionez, kontratuak eta lan-baldintzek legeria betetzen dutela ziurtatze aldera.
- 3- Emango diren pauso guztiak sektoreko elkarteekin eta taldeekin lankidetzan garatuko direla ziurta dezala.

Gasteizen, 2011ko otsailaren 28an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea

